



BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

Servicios de Cooperación
con la Justicia



Justiziarekiko
Lankidetzarako Zerbitzuak

EUSKADI
2007KO TXOSTENA

AURKIBIDEA

- AURKEZPENA.
- ESTATISTIKA DATUAK.
- ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA.
- ETXEKO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUAK.
- ETXEKO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA.

AURKEZPENA

1.- Sarrera

Zerbitzu honek 2007. urtean egindako jarduera eta delituen biktimei eskainitako arreta biltzea izan da memoria honen helburua. Lurralde Historiko bakoitzeko zerbitzuek beren gain hartu dute estatistika-datuak biltzearen ardura.

Memorian bi zati bereizten dira. Lehenik, hiru lurraldeetako estatistika-datuen batuketa aurkezten da. Hortik arreta eskaini zaien pertsonen profilerak hurbil gaitzke, baita biktimizazio-prozesuari buruzko informazioa jaso ere.

Jarraian, etxeko indarkeriari dagozkion estatistika-datuen batuketa aurkezten da, eta hortik horrelako biktimen ezaugarri nagusiak atera daitezke.

2.- Biktimen eskubideak

Biktimari Laguntzeko Zerbitzuaren (BLZ) barruan erabili beharreko metodologia hiru atalen (juridikoa, soziala eta psikologikoa) eginkizunen garapenean oinarrituko da. Atal horiek, ongi bereizita badaude ere, elkarri lotuta eta koordinatuta daude une oro, eta diziplina arteko lana egiten dute, batetik, jarraian azaltzen diren helburu guztiak betetzeko, eta, bestetik, delituen biktimen eskubideak babesteko, haien beharren arreta kontuan hartuz.

- Konstituzioaren 24. artikulua dioenez, pertsona guztiek eskubidea dute beren legezko eskubide eta interesetan epaileen benetako babesa izateko, eta ezein kasutan inor ere ez da defentsarik gabe geratuko.
- 35/1995 Legeak ezarritako laguntza publikoei buruz informazioa jasotzeko eskubidea. Indarkeriazko doluzko delituen eta/edo sexu-askatasunaren aurkako delituen biktima direnek eskuratu ahal izango dituzte laguntza ekonomiko horiek, Legeak ezarritako kopuruetan, zigor-auzibidean ebazpen judizial irmoa eman ondoren. Epaia eman aurretik, aipatutako delituen biktima diren eta ezegonkortasun-egoera ekonomikoan dauden biktimek behin-behineko laguntza eskatu ahal izango dute.
- Zigor-ekintza gauzatzeko eskubidea, salaketa edo kereila aurkeztuz; horren kopia edo egiaztagiria jasoko da.
- Poliziarengandik ikerketaren emaitzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, 35/1995 Legea, 15. artikulua.



- Ekintzen eskaintza formalari buruz informazioa jasotzeko eskubidea. Salaketa jartzerakoan jakinaraziko zaio akusazio partikular gisa abokatu eta prokuradorearekin ager daitekeen edo haren interesak babestearen ardura Ministerio Fiskalak hartuko duen.
- Auziaren parte izateko eta akzio zibila gauzatzeari uko egiteko eskubidea. 35/1995 Legea, 15. artikulua.
- Galdeketan haren egoera pertsonala, eskubideak eta duintasuna errespetatuak izateko eskubidea. 35/1995 Legea, 15. artikulua.
- Epaiketa noiz eta non egingo den jakiteko eta epaiaren jakinarazpena jasotzeko eskubidea (epaia auziaren parte ez bada ere). 35/1995 Legearen 15. artikulua.
- Uztailaren 31ko 27/2003 Legean onartutako eskubideak; etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautzen du lege horrek.
- Genero Indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan onartutako eskubideak.

3.- Biktimen beharrak

Biktinek dagoen biktimizazio-egoerari aurre egiteko egonkortu beharra dute. Horretarako beharrezkoa da:

- Biktimak bere eskubideen eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoen berri izatea.
- Profesional batek biktimari gertatutakoarekin zerikusia duen dinamikari buruzko azalpena ematea (delitua zergatik jasan duen).
- Biktimak informazio eta prestakuntza egokia jasotzea, hurbileko inguruneko portaerei buruz.
- Auzibideari buruzko informazioa ere jaso dezan, baita egingo diren lege-izapide guztiei buruzkoa ere.
- Esparru horretan jarduten duten profesionalak biktimaren duintasuna eta intimitatea errespetatzea, galera handiagoak gerta ez daitezen (biktimizazio osagarria).
- Esku-hartze integrala eta espezializatua jasotzea, profesional baten eskutik beste baten eskura etengabe igaro gabe, horrek egoera are okerrago bihur baitezake.
- Gizarte eta psikoterapia mailan lehenbailehen esku hartzea.



- Orientazio espezializatua eta koordinatua, baliabide pertsonal eta sozial guztiak eraginkortasunez kudeatuz, jasaten duen segurtasun-gabeziako eta harridurazko sentimendua arintzeko.

4.- Biktimari Laguntzeko Zerbitzuei buruzko Informazioa

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua doako eta borondatezko zerbitzu bat da, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Zigor Betezarazpenaren Zuzendaritzaren menpe dago.

Batez ere delituen biktimei informazioa emateko, laguntza eskaintzeko eta operadore juridikoekin lankidetzan jarduteko zerbitzua da. BLZk lurralde bakoitzean jende kualifikatua du eremu juridikoan, psikologikoan eta gizarte-laguntzaren esparruan. Horretaz gain, funtzionatzeko autonomia-maila handia du.

Zerbitzuaren **helburu nagusiak** honako hauek izan dira:

- Biktimak defendatzeko prozedurei buruzko informazioa ematea.
- Babes Aginduaren ondoriozko administrazio-koordinazioaren Zentro koordinatzailea izatea.

Honako zerbitzu hauek eskaintzen dira: berehalako laguntza psikologikoa ematea; prozedura polizialean eta judizialean aholkuak ematea prozedurak amaitu arte; premiazko laguntza sanitarioa behar izanez gero, laguntza eskaintzea, dauden bitarteko sozialei buruzko informazioa ematea, biktimaren gizarte-ingurunean laguntza ematea erakundeen lankidetzarekin, eta abar.

Zerbitzu hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurraldeetan eskaintzen da. Uztailaren 31ko 27/2003 Legea —etxeko indarkeriaren biktimak babesteko Agindua arautzen duena— indarrean jarri zenetik aurrera, adierazitako Agindua aplikatzeari dagokionez, administrazio-koordinazioaren zentroaren eginkizunak betetzen ditu.

Biktimei dagokienez, honako hauek dira zerbitzuaren berariazko **helburuak**:

- Salaketa jartzerakoan eta salaketa jarri ondoren biktimari informazioa eta aholkuak ematea. Oso garrantzitsua da biktimari behar bezalako aholkuak ematea delituzko egintza gertatu eta berehala.
- Delituak biktimari eragin dion gatazkari ahalik eta konponbiderik egokiena aurkitzen laguntzea.
- Biktimak dituen eskubideei buruz informazioa ematea.

-Behar izanez gero, biktimei laguntza psikologikoa eta soziala ematea.

-Biktima eskumeneko gizarte-zerbitzu egokietara bideratzea, behar izanez gero.

-Operadore juridikoei behar duten informazioa ematea —betiere biktimaren baimenarekin— haien ikuspuntuaren kontuan hartuta, erabaki egokienak hartzeko.

-Biktimak jarritako salaketari buruzko aholkuak ematea eta jarraipena egitea edozein bidetatik egindako zigor-auzibidea amaitu arte.

-Biktimizazio-prozesuei buruzko informazioa biltzea eta batez ere “Bigarren Mailako Biktimizazioa” izeneko eremuan.

-Biktimari laguntza eskaintzea bere ingurune sozialean (familia, auzoa, etabar).

Honako hauek dira zerbitzuaren **jardun-eremuak**:

-Biktimei laguntzea: BLZ zerbitzuak bertara jotzen duten edozein motatako delituzko biktimei eskaintzen die laguntza, adierazitako laguntza-eskaeraren edukiaren arabera, kasu jakin bakoitzaren azterketak berariazko zerbitzu eta erakundeetara jotzea egokiagoa dela ezartzea bazter utzi gabe.

Oso garrantzizkoa da biktimak lehen unetik jasotzea laguntza eta informazioa; horregatik gizarte-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, polizia kidegoek eta operadore juridikoei berebiziko garrantzia dute BLZri eta zerbitzu horrek ematen dituen zerbitzuei buruzko informazioa emateko biktimei.

-Epaitegiei eta Fiskaltzei informazioa ematea: BLZren jardun nagusietako bat zera da: biktimaren egoera sozialari, pertsonalari, familiarrari, psikologikoari, ekonomikoari eta antzekoei buruzko Gizarte Txostenak egitea Epaitegi eta Fiskaltzetarako. Betiere biktimaren baimenarekin, jakina.

Zeregin horrekin Justizia Administrazioak humanizatzearen alde lan egin nahi da, baita biktimaren beharrak asetzearen alde ere, operadore juridikoei behar duten informazio guztia eduki dezaten lagunduz.

Honako hauek dira Zerbitzuaren egintzen lanaren **funtssezko alderdiak**:

-Biktimei honako hauei buruzko informazioa ematea:

– Delitu bat egitearen ondoriozko erantzukizun zibila eraginkorra egitea ahalbidetzen duten arauzko jarduteei, ofizio-abokatueta iristeko moduari, doako Justiziari eta abarri buruz.

– Izandako kalteak diru publikoarekin ordaintzeko aukera (35/1995 Legea eta beste arau batzuk)

- Biktimen eskubideak baliarazteko legezko prozedurak.
- Hainbat polizia-jardun edo beste jardun mota batzuk.
- Biktimak gauzatu beharreko jardunak, beste biktimizazio baten arriskuak saihesten dituztenak: hartu beharreko segurtasun- eta babes-neurriak.

-Arreta berezia:

- Berariazko izapideak egin direla bermatzea: biktimak salaketa aurkeztu duela, abokatu baten laguntza, segurtasun- eta babes-neurriak hartu direla eta abar.
- Biktimak duen arazoari buruzko informazioa eta laguntza jasotzen duela egiaztatzea: legezko esparruari eta jarduteko aukerei, osasun-sarera, gizarte-sarera eta antzekoetara bideratzeari dagokionez.
- Biktimaren ahaideekin, lagunekin eta biktimari babesa ematen dion ingurunearekin harremanetan jartzea.

- Etengabeko arreta:

- Biktimak salaketa izapidetzeari buruz etengabeko informazioa ematea.
- Jasandako egintzaren ondoriozko bilakaera sozioemozionala aztertzea eta dagokion zerbitzura bideratzea, betiere BLZk egingo dio jarraipena.
- Gizartean dauden bitartekoak erabiltzea.
- Biktimak duen segurtasun-gabeziaren eta isolamenduaren sentimendua murriztea eta bizi izandako egoera baliatzea biktima bere ingurunearekin (familia, auzokoak eta abar) hobeto erlazionatzen laguntzeko egintzak sustatzea.

-Babes Aginduaren ondoriozko Zentro Koordinatzailea da: Koordinazio Protokoloak ezartzen duenaren arabera, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua eraginkorra izateko zerbitzua da eta Koordinazio zentro horiek jada badauden Biktimari Laguntzeko zerbitzuetan dute egoitza, halaber, delituzko biktimen orientazio juridikoari, psikologikoari eta sozialari dagokionez, zentro horiek agindutako lanak betetzen jarraitzen dute; bereziki indarkeriazko delituen eta sexu-askatasunaren aurkako erasoei dagokienez, 35/95 Legean ezarritako laguntzak.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2003ko abenduaren 9ko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera, etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren delituak zirela medio jada bazeuden Lurralde

Koordinazioaren Zentroaren eginkizuna Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan ezarri zen.

Gizarte-eremuari dagokionez, zerbitzuen arteko koordinazioa, zerbitzu horietan lan egiten duten profesionalen ongi egite garrantzitsua kontuan hartuta egiten da, baita *“etxeko indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasuna gizarte-zerbitzuen eremuan koordinatzeko protokoloa”* izenekoan ezarritakoa kontuan hartuta ere.

Hain zuzen ere, Babes Aginduari dagokionez, honako hauek izango dira Biktimari Laguntzeko Koordinazio Zentroen eta Zerbitzuen helburu nagusiak:

- Gizarte-laguntzarako eta gizarte-babeserako neurriak koordinatzea. Horretarako, Jurisdikzio Organoek emandako babes-neurriak jaso behar dituzte eta eskumeneko organismoei igorri behar dizkiete adostutako laguntzak eman ditzaten.
- Biktimari informazioa ematea eta biktima gizarte-baliabideetara eta gizarte-laguntzetara bidaltzea. Agindua organismo batera edo bestera bidaltzerakoan biktimak laguntza Koordinazio Zentroan eskatu duen edota Biktimari Laguntzeko Zerbitzuan egin duen. Hortaz, babes-agindua jasotakoan, zerbitzu hori biktimarekin harremanetan jarriko da dauden laguntza-bitartekoen eta gizarte-babeserako bitartekoen berri emateko, biktimaren beharrak zein diren jakitearren eta babes-agindua eskumeneko organismoei igortzearren biktimak eskatuko dituen laguntzak eman ahal izateko.
- Erruztatuari ezarritako zigorraren egoerari buruz etengabeko informazioa ematea, baita kautelazko neurrien irismenari eta indarraldiari buruz ere. Hortaz, babes-agindua ezartzea erabakitzen duen epaitegiak bulego honi honako hau jakinaraziko dio idazki bidez: agindua ezarri dela eta erruztatuari eragiten dioten auzibideko egoerak zein diren, baita zigor-betearazpenaren fasean ere.
- Estatistika bat egitea, non biktimek jasotzen dituzten babes-aginduen kopurua eta hartutako neurriak azalduko diren, baina ez da datu pertsonalik aipatuko.



ESTADÍSTICA DATUAK

ARRETA ESKAINI ZAIEN ERABILTZAILEEN TAULA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
BERRIAK	407	1.245	784	2.436
AURREKOAK	551	613	720	1.884
GUZTIRA	958	1.858	1.504	4.320

ERABILTZAILE BERRIEN MOTA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G
ZENBATEKOA	1.983	315	106	32	2.089	347
%-TAN	94,92	90,77	5,08	9,23	100	100

BIDALKETEN JATORRIA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Barruti judizialak	1.464	216	36	11	1.500	227	71,80	65,41
Fiskaltza	11	4	3	2	14	6	0,67	1,72
Auzitegiko medikua	3	-	-	-	3	-	0,14	-
Ertzaintza	79	17	7	3	86	20	4,11	5,76
Bestelako Poliziak	20	1	1	-	21	1	1	0,28
Osasun Zerbitzuak	8	2	1	1	9	3	0,43	0,86
Gizarte Zerbitzuak	126	21	16	7	142	28	6,87	8,06
ALZ	3	1	-	-	3	1	0,14	0,28
LJZ	-	1	-	-	-	1	-	0,28
Abokatuak	62	4	4	-	66	4	3,15	1,15
Administrazioa	18	3	2	-	20	3	0,95	0,86
Elkarteak	2	1	-	-	2	1	0,09	0,28
Norberak	36	14	8	4	44	18	2,10	5,18
Beste erabiltzaile batzuk	20	4	9	2	29	6	1,38	1,72
Beste batzuk	103	21	15	1	118	22	5,64	6,35
E.D.D.	28	5	4	1	32	6	1,53	1,72
GUZTIRA	1.983	315	106	32	2.089	347	100	100

JASANDAKO KALTEAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
FISIKOAK	1.317	180	50	18	1.367	198	34,23	29,95
PSIKIKOAK	1.516	187	81	24	1.597	211	40	31,95
EKONOMIKOAK	204	111	48	12	252	123	6,31	18,60
SOZIALAK	636	86	37	13	673	99	16,86	14,97
ZEHAZTUGABEAK	95	27	9	3	104	30	2,60	4,53
GUZTIRA	3.768	591	225	70	3.993	661	100	100

ADINA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
0-6	1	1	-	-	1	1	0,04	0,28
7-12	8	4	-	1	8	5	0,38	1,44
13-18	51	20	1	-	52	20	2,48	5,76
19-25	228	22	12	2	240	24	11,48	6,91
26-35	686	84	16	4	702	88	33,60	25,36
36-45	464	74	35	13	499	87	23,88	25,07
46-55	226	40	23	10	249	50	11,92	14,43
56-65	110	34	6	-	116	34	5,57	9,79
> 65	64	21	2	1	66	22	3,17	6,34
E.D.D.	145	15	11	1	156	16	7,48	4,62
TOTAL	1.983	315	106	32	2.089	347	100	100

EGOERA PERTSONALA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ezkongabea	737	155	19	7	756	162	36,18	46,68
Ezkondua	734	86	59	19	793	105	37,96	30,25
Izatezko bikotea	55	7	3	1	58	8	2,77	2,30
Banandua	125	12	6	3	131	15	6,27	4,33
Dibortziatua	80	11	5	1	85	12	4,06	3,45
Alarguna	62	11	7	1	69	12	3,32	3,45
Izatezko bikote banandua	14	1	-	-	14	1	0,67	0,29
E.D.D.	176	32	7	-	183	32	8,77	9,25
GUZTIRA	1.983	315	106	62	2.089	347	100	100

IKASKETAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ikasketa gabea	13	4	-	-	13	4	0,62	1,16
Lehen mailakoak	926	140	54	13	980	153	46,91	44,10
Ertainak	571	97	25	16	596	113	28,53	32,57
Goi-mailakoak	96	24	17	2	113	26	5,40	7,79
E.D.D.	777	50	10	1	387	51	18,54	14,68
GUZTIRA	1.983	315	106	32	2.089	347	100	100

LAN EGOERA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
LANGILEA	Autonomoa	76	14	9	3	85	17	4,07	4,90
	Inoren kontura, finkoa	301	64	22	17	323	81	15,47	23,36
	Inoren kontura aldi baterako	236	37	10	2	246	39	11,77	11,24
	E.D.D.	23	7	1	1	24	8	1,17	2,30
LANGABEA	Gizarte-larrialdiko laguntza	174	20	6	-	180	20	8,61	5,77
	Langabezi prestazioa	34	1	-	-	34	1	1,64	0,28
	Langabezi sorospena	9	2	-	-	9	2	0,44	0,57
	Prestazio ekonomikorik gabe	68	2	4	-	72	2	3,44	0,57
	E.D.D.	92	6	2	1	94	7	4,49	2,02
Jubilatua/pentsioduna		133	50	5	4	138	54	6,60	15,57
Ikaslea		102	39	8	-	110	39	5,26	11,24
Etxekoandrea		337	-	28	-	365	-	17,47	-
Ezikutukoa		61	6	2	2	63	8	3,01	2,30
E.D.D.		337	67	9	2	346	69	16,56	19,88
GUZTIRA		1.983	315	106	32	2.089	347	100	100

HUTSEGITEAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Pertsonen aurkakoak	Lesioak	47	16	5	2	52	18	23,86	28,11
	Zuhurtziagaberiak eragindako lesioak	1	2	-	-	1	2	0,46	3,13
	Zaintza hausketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Familiarteko tratu txarrak	14	3	4	-	18	3	8,25	4,69
	Mehatxu arinak	50	15	4	1	54	16	24,77	25
	Irainak eta isekak	49	11	6	1	55	12	25,22	18,76
	Derrigortzeak	32	7	3	4	35	11	16,06	17,18
Ondasunen aurkakoak	Ebasketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Maula	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bidegabeko jabetza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kalteak	3	2	-	-	3	2	1,38	3,13
	Iruzurketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Interes orokorraren aurkakoak			-	-	-	-	-	-	-
Ordena publikoaren aurkakoak			-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA			196	56	22	8	218	64	100

DELITUAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Pertsonen aurkakoa	Legez kontrako atxiloketa	6	2	2	-	8	2	0,34	0,59
	Mehatxuak	291	40	9	1	300	41	12,97	12,27
	Hertsatzeak	71	7	4	3	75	10	3,25	2,99
Askatasu- naren aurkakoa	Tratu txarrak	879	117	23	10	902	127	39,01	38,03
	Ohiko tratu txarrak	503	31	9	3	512	34	22,14	10,17
	Giza hilketa	4	2	8	4	12	6	0,51	1,79
	Tentatiba	3	-	-	-	3	-	0,12	-
	Lesioak	291	53	10	4	301	57	13,01	17,10
Sexu askatasun- aren aurkakoa	Sexu-erasoa	45	3	12	2	57	5	2,46	1,49
	Bortxaketa	1	-	1	-	2	-	0,08	-
	Sexu-abusua	18	1	7	3	25	4	1,08	1,19
	Sexu-jazarpena	5	-	2	-	7	-	0,35	-
	Erakuts-zalekeria eta sexu zirikatzea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Prostituzioa eta adingabekoen galbideratzea	1	-	-	1	1	1	0,05	0,31
Orearen aurkakoa	Kalumniak	1	2	-	-	1	2	0,05	0,59
	Irainak	11	3	1	-	12	3	0,51	0,89
Intimita- tearen aurkakoa	Sekretuak ezagutarazi eta agertaraztea	1	-	-	-	1	-	0,05	-
	Bizilekua bortxatzea	3	-	-	-	3	-	0,12	-
Familia harremanen aurkakoa	Legez kontrako ezkontza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Adingabearen egoera aldaraztea	1	-	-	1	1	1	0,05	0,31
	Zaintza hausketa	2	-	-	-	2	-	0,08	-
	Pentsioa ezordaintzea	10	-	-	-	10	-	0,43	-
	Adingabeak ateratzea	1	-	-	-	1	-	0,05	-
	Familia uztea	4	1	2	1	6	2	0,25	0,59
Ondarearen aurkakoa	Ebasketa	6	3	4	-	10	3	0,43	0,89
	Lapurreta	14	11	6	1	20	12	0,87	3,59
	Estortsio	1	-	-	-	1	-	0,05	-
	Usurpazio	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ibilgailua erabiltzeko lapurreta/ebasketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Prezioen aldaketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Maula	8	13	-	-	8	13	0,34	3,89
	Bidegabeko	-	5	-	-	-	5	-	1,49



	jabetza								
	Iruurrezko kaudimengabezia	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kalteak	5	2	1	-	6	2	0,25	0,59
Dokumentu publikoak faltsutzea	Dokumentu publikoak	1	1	-	-	1	1	0,05	0,31
	Dokumentu pribatuak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	-	-
Ordena publikoaren aurkakoa	Terrorismoa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Agintarien aurkako atentatuak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Nahasketa publikoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Justizia Administrazioaren aurkakoa	Akusazio faltsua	1	-	-	-	1	-	0,05	-
	Lekukotasun faltsua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Desleialtasuna	20	-	-	-	20	-	0,87	-
	Ebazpen judizialaren ez betetzea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kondena urratzea	-	-	-	-	-	-	-	-
	Prebarikazio	-	-	-	-	-	-	-	-
	Estalketa	-	-	-	-	-	-	-	-
Segurtasun kolektiboaren aurkakoa	Osasun publikoaren aurkakoa	-	-	-	1	-	1	-	0,31
	Trafiko segurtasunaren aurkakoa	1	1	1	-	2	1	0,08	0,31
	Kalte handiak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Suteak	-	-	-	-	-	-	-	-
Langileen eskubideen aurkakoa	-	1	-	-	-	1	-	0,31	
Sorospen eginbeharra ez betetzea	1	-	-	-	1	-	0,05	-	
GUZTIRA	2.210	299	102	35	2.312	334	100	100	

EGILEA

			ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%		
			E	G	E	G	E	G	E	G	
IDENTIFIKATUA	AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	887	75	12	5	899	80	43,03	23,06	
		Aurrekoa	57	36	10	4	67	40	3,20	11,52	
		Ondorengoa	133	45	8	3	141	48	6,74	13,84	
		Albokoa	58	21	7	3	65	24	3,11	6,92	
		Ezkon-ahaidea	5	5	-	-	5	5	0,23	1,45	
	BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	612	26	6	3	618	29	29,58	8,35	
		Laguna	19	5	5	2	24	7	1,14	2,01	
		Lankidea/ikaskidea	19	10	6	1	25	11	1,24	3,18	
		Auzokidea	23	10	5	-	28	10	1,36	2,88	
		Beste batzuk	95	47	25	6	120	53	5,74	15,26	
	EZEZAGUNA			37	22	17	5	54	27	2,58	7,78
	IDENTIFIKATU GABEA			4	4	2	-	6	4	0,28	1,16
E.D.D.			34	9	3	-	37	9	1,17	2,62	
GUZTIRA			1.983	315	106	32	2.089	347	100	100	

ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO BIKTIMAREKIKO HARREMANA

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	34	10	44	31,88
	Aurrekoa	14	5	19	13,76
	Ondorengoa	14	4	18	13,05
	Albokoa	10	3	13	9,41
BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	7	2	9	6,53
	Laguna	2	2	4	2,90
	Lankidea/ikaskidea	2	-	2	1,45
	Auzokidea	2	-	2	1,45
	Beste batzuk	18	4	22	15,94
E.D.D.		3	2	5	3,66
GUZTIRA		106	32	138	100

BIZITOKIAREN ETA GERTAKARIAREN TOKIAREN ARTEKO LOTURA

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
BAI	Etxean	1.237	175	1.412	50,43
	Auzo-komunitatea	37	7	44	2,07
	Auzoa	232	47	279	13,55
	Lantokia/lkastexea	42	16	58	4,62
	Beste batzuk	83	17	100	4,89
EZ		288	61	349	17,58
E.D.D.		170	24	194	6,92
GUZTIRA		2.089	347	2.436	100

SALAKETA JARTZEKO EDO EZ JARTZEKO ARRAZOIAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Justizia administrazioaren jardutea bilatzea	1.311	194	58	20	1.369	214	42,71	42,80
	Itzultze materiala bilatzea	31	34	8	2	39	36	1,21	7,20
	Biktima babesteko neurriak bilatzea	1.301	146	34	9	1.335	155	41,64	31
	Salatuarentzako neurri alternatiboak bilatzea	18	6	1	1	19	7	0,59	1,41
	Beste batzuk	42	9	2	-	44	9	1,37	1,80
	GUZTIRA	2.703	389	103	32	2.806	421	87,52	84,20
EZ	Egilearekiko lotura afektiboagatik	113	18	6	1	119	19	3,71	3,80
	Erasotzailearekiko beldurragatik	57	8	6	-	63	8	1,93	1,60
	Erantzun penalak arazoa konpondu ez duelako	38	9	6	2	44	11	1,37	2,20
	Justizia Administrazioarekiko konfiantza ez dagoelako	6	2	2	-	8	1	0,24	0,20
	Epaitegitik kanpoko akordioa dagoelako	5	-	2	-	7	-	0,21	-
	Beste batzuk	83	20	12	5	95	25	2,96	5
	GUZTIRA	302	57	34	8	336	65	10,45	12,80
N.A.D.	62	15	2	-	64	15	2,03	3	
GUZTIRA	3.067	461	139	40	3.206	501	100	100	

AURREKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Egile bera delitu bera	991	130	27	11	1.018	141	48,07	40,63
	Egile ezberdina delitu bera	78	8	7	3	85	11	4,75	3,17
	Egile bera delitu ezberdina	56	5	2	1	58	6	2,77	1,75
	Egile ezberdina delitu ezberdina	38	4	1	-	39	4	1,86	1,15
EZ		259	70	50	10	309	80	14,79	23,05
E.D.D.		561	98	19	7	580	105	27,76	30,25
GUZTIRA		1.983	315	106	32	2.089	347	100	100

BIGARREN MAILAKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Poliziala	29	7	1	-	30	7	1,40	2
	Judiziala	103	13	8	1	111	14	5,20	4
	Abokatuak	40	2	-	-	40	2	1,87	0,57
	Soziofaiiarra	286	39	13	4	299	43	14,02	12,33
	Beste batzuk	38	7	7	1	45	8	2,11	2,30
EZ		971	146	55	16	1.026	162	48,15	46,40
E.D.D.		558	103	23	10	581	113	27,25	32,40
GUZTIRA		2.025	317	107	32	2.132	349	100	100

DEMANDA MOTA

		BIKTIMA ZUZENA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Arreta Juridikoa	Eskubideak	933	205	68	20	1.001	225	27	37,87
	Kalte ordaina	34	22	12	6	46	28	1,25	4,71
	Prozedura	497	115	41	10	538	125	14,50	21,06
Arreta Psiko.	Tratamentua	508	36	33	8	541	44	14,60	7,42
	Kontsulta	13	22	13	4	26	26	0,70	4,38
Arreta soziala	Informazioa	478	37	28	6	506	43	13,65	7,23
	Diagnostikoa	338	39	16	4	354	43	9,55	7,23
	Norabideratzea	346	27	16	6	362	33	9,76	5,56
	Errekurso kudeaketa	148	14	2	1	150	15	4	2,52
Akonpainamendua		23	2	6	-	29	2	0,87	0,33
Bitartekotzarako gai		-	-	-	-	-	-	-	-
Zehaztu gabea		152	9	1	1	153	10	4,12	1,69
GUZTIRA		3.470	528	236	66	3.706	594	100	100



ESTADÍSTIKA DATUEN BALIOESPENA

►Laguntza jaso duten lagunen kopurua

Euskal Autonomia Erkidegoko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan (BLZ) 4.320 laguni eman zaie laguntza 2007. urtean. Zifra horretan barne hartu dira Zerbitzuetara lehen aldiz joan diren erabiltzaileak, eta baita arazozen nondik norakoak direla-eta oraindik laguntzaren bat jasotzen duten aurreko urteetako erabiltzaileak ere.

►Erabiltzaile berri mota

Datuak aztertuta, nabarmentzekoa da BLZetan arreta eman zaien lagunen % 85,75 (2089) emakumezkoa dela; % 14,25 (347), aldiz, gizonezkoa da.

Laguntza jaso duten emakume guztiei dagokienez, % 94,92 gertakari penal baten zuzeneko biktima izan da, eta % 5,08 zeharkako biktima; laguntza jaso duten gizonen kasuan, aldiz, % 90,77 delitu baten zuzeneko biktima izan da, eta % 9,23 zeharkako biktima.

►Nondik datozen

Aurreko urteetan bezala, emakume gehienak Epai Barrutietatik (% 71,80) eta Gizarte Zerbitzuetatik (% 6,87) etorri dira.

Gizonei dagokienez, gehienak Barruti Judizialek bideratzen dituzte (% 65,41), beste batzuek Gizarte Zerbitzuek bideratzen dituzte (% 8,06) eta, azkenik, norberaren ekimenaz bideratzen direnak ditugu (% 5,18).

►Jasandako kalteak

Atal hau aztertzerakoan, kontuan hartu beharra dago jasandako kalteak kaltetuek adierazitakoak eta ekipoko profesionalak atzemandakoak direla. Kasuren batean gerta liteke ondorio fisikoak, psikikoak eta ekonomikoak aldi berean gertatzea.

BLZren erabiltzaile gehienak kalte psikikoen eta fisikoen biktimak dira, jasandako gertakariaren ondorioz; zehazki, emakumeen % 40k eta gizonen % 31,95ek kalte psikikoak jasan ditu, eta emakumeen % 34,23k eta gizonen % 29,95ek, aldiz, kalte fisikoak jasan ditu. Emakumeen % 16,86k gizarte-kalteak jasan ditu, eta gizonen % 18,60k kalte ekonomikoak.



➤ Adina

Adinari dagokionez, aniztasuna da nagusi. Emakume gehienek (% 33,60) 26-35 urte dituzte, eta gainerakoei dagokienez, % 23,88k 36-45 urte ditu, % 11,92k 46-55 urte, eta % 11,48k 19-25 urte.

Gizonezkoen kasuan, gehienek (% 25,36) 26-35 urte dituzte, eta gainerakoei dagokienez, % 25,07k 36-45 urte ditu, % 14,43k 46-55 urte, eta % 9,79k 56-65 urte.

➤ Egoera zibila

BLZra joaten diren emakumezko erabiltzaile gehienak ezkondata daude, hau da, emakumeen % 37,96 ezkondua da, eta % 36,18 ezkongabea. Gizonen kasuan, % 46,68 ezkongabea da, eta % 30,25 ezkondua.

➤ Ikasketak

BLZra joaten diren erabiltzaile gehienek lehen mailako ikasketak dituzte: emakumeen % 46,91k eta gizonen % 44,10ek. Gainerakoei dagokienez, emakumeen % 28,53k eta gizonen % 32,57k erdi-mailako ikasketak ditu.

➤ Okupazio-egoera

Emakumeei dagokienez, % 31,31 biztanleria aktiboa da, batez ere besteren kontura lan egiten duten langileak dira, kontratu finkoarekin edo aldi baterako kontratuarekin; % 17,47 etxeko andrea da, eta % 14,09 langabezian dago.

Gizonei dagokienez, % 39,5 jardunean dago, gehienak kontratu finkoarekin; bigarrenik, erretiratutako gizonak % 15,57 dira, eta hirugarrenik, ikasleak % 11,24 dira.

➤ Zigor-zuzenbideko arau-haustearen mota/kalifikazioa

Aipatzekoa da azken urteetan zenbait lege-aldaketa egin direla. Gainera, EAEko etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduak koordinatzeko zentroek BLZetan izan dute egoitza. Horren eta beste zenbait faktoreren eraginez, arreta eman zaien lagun gehienak delitu gisa sailkatutako gertakarien biktimak dira. Aurreko urteetan, berriz, zerbitzuak baliatu dituztenen gehiengo zabala hutsegite gisa sailkatutako delituzko gertakarien biktima zen.

Nabarmendu beharrean gaude gehienak pertsonen aurkako delituak direla eta familia-indarkeriarekin zerikusia duten arazoek eragiten dituztela (tratu txarrak, lesioak, mehatxuak, etab.)

➤ Delituzko gertakariaren egilea

Atal honetan alde handia nabari da, biktima gizona izan edo emakumea izan.

Emakumeei dagokienez, kasuen % 56,31tan delituzko gertakariaren egilea biktimaren familia-ingurukoa da, ezkontide/bikotea edo ezkontide/bikote ohia (% 43,03), bereziki. BLZaren emakumezko erabiltzaileekin jarraituz, kasuen % 39,06tan delituaren egilea biktimaren gertukoa da: bikotekidea - bikotekide ohia (% 29,58).

Gizonei dagokienez, kasu gehienetan delitu-egilea ere familia-inguruko pertsona bat da (% 56,79), ezkontide/bikotea edo ezkontide/bikote ohia bereziki, eta ondorengoak (% 13,84).

➤ Zuzeneko biktimaren eta zeharkako biktimaren arteko harremana

Zeharkako biktimak delituzko gertakaria zuzenean jasan ez badute ere horren ondorioetako bat jasaten dutenak dira, dela zuzeneko biktimarekin afektibitate-harremana dutelako, dela biktimaren kolektiboko kide direlako.

Emakumeen kasuan, BLZtan laguntza jaso duten zeharkako bitima gehienak familiarterko harremana (ezkontidea, gurasoa, ondorengo, etab.) dute zuzeneko biktimarekiko, % 67,92an; gizonzkoetan % 68,72an delarik.

➤ Bizitokiaren eta gertakariaren tokiaren arteko lotura

Laguntza eman zaien emakumeen % 72,08 gertakaria jazo den toki berean bizi da. Delituzko gertakaria etxean bertan (% 59,20) edo bizi diren auzoan (% 11,11) jazo da.

Laguntza eman zaien gizonen % 66,05 gertakaria jazo den toki berean bizi da, eta kasuen % 50,43tan delituzko gertakaria etxean bertan gertatzen da nagusiki.

➤ Motibazioa

Salaketa jartzen duten biktimen artean, emakumezkoek salaketa jartzen duten kasuen % 42,71etan Justizia Administrazioak jardun dezan bilatzen dute, eta, era berean, babes-neurriak eskatzen dituzte kasuen % 41,64tan.

Gizonen kasuan, salaketa jartzerakoan bilatzen dutena Justizia Administrazioak jardutea da kasuen % 42,80tan, eta babes-neurriak eskatzen dituzte kasuen % 31tan.

Delitua jasan arren salaketa jartzeari uko egiten dioten biktimei dagokienez, emakumeen % 3,71k eta gizonen % 3,80ak ez du salaketarik jartzen delituaren egilearekin harreman afektiboa duelako edo haren beldur delako, bereziki.



➤ **Aurreko biktimizazioak**

Puntu honetan aztertzen da BLZra lehen aldiz jotzen duten lagunek beste biktimizazio bat jasan ote duten, oraingoan azaldu behar dutenaren aurretik. Nabarmentzekoa da emakumeen % 57,45ek aldeztu aurreko biktimizazioak jasan dituela, eta kasuen % 48,07tan delitu-egilea eta jasandako delituzko egintza bat datoz.

Gizonei dagokienez, % 53,30ek nolabaiteko biktimizazioa jasan du, eta kasuen % 40,63tan egilea eta delituzko gertakaria bat datoz.

➤ **Bigarren mailako biktimizazioak**

Emakumeen % 27,25engan eta gizonen % 32,40rengan informazio hori bildu ezin izan den arren, nabarmentzekoa da emakumeen % 48,15engan eta gizonen % 46,40rengan BLZko profesionalak ez duela bigarren mailako biktimizazioaren zantzurik aurkitu. Bigarren mailako biktimizazioa gertatu den kasuetan, emakumeen % 14,02k eta gizonen % 12,33ak adierazi dute gizarte-eta familia-arloan gertatu dela. Ezin da aipatu gabe utzi arlo judizialean gertatzen den biktimizazioa: emakumeen kasuan, % 5,20, eta gizonen kasuan, % 4.

➤ **Zerbitzuan egindako demanda**

Zerbitzuaren erabiltzaileek demanda juridikoak egiten dituzte bereziki (emakumeen % 42,75ek eta gizonen % 63,34k). Demanda horietatik gehienek eskubideekin eta prozedurarekin dute zerikusia, baita, neurri txikiagoan, kalte-ordainekin ere.

Emakumeen % 36,96k eta gizonen % 22,54k arreta soziala eskatu dute. Arreta psikologikoa, aldiz, emakumeen % 15,30ek eta gizonen % 11,80k eskatu dute.



ETXEKO INDARKERIAREN ESTADISTIKA DATUAK

ARRETA ESKAINI ZAIEN ERABILTZAILEEN TAULA

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G	E	G
BERRIAK	289	21	943	140	601	67	1.833	228
GUZTIRA	310		1.083		668		2.061	

ERABILTZAILE BERRIEN MOTA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA	
	E	G	E	G	E	G
ZENBATEKOA	1781	212	52	16	1.833	228
%-TAN	97,16	92,98	2,84	7,02	100	100

BIDALKETEN JATORRIA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Barruti judizialak	1362	172	16	6	1378	178	75,17	78,13
Fiskaltza	6	1	-	-	6	-	0,32	0,43
Auzitegiko medikua	1	-	-	-	1	-	0,05	-
Ertzaintza	63	7	1	-	64	7	3,49	3,07
Bestelako Poliziak	19	1	1	-	20	1	1,09	0,43
Gizarte Zerbitzuak	106	8	8	2	114	10	6,21	4,38
Osasun Zerbitzuak	6	1	1	1	7	2	0,38	0,87
Abokatuak	60	2	2	-	62	2	3,38	0,87
LJZ/ALEZ	2	-	-	-	2	-	0,10	-
Administrazioa	12	1	3		15	1	0,81	0,43
Langileak	20	4	4	3	24	7	1,30	3,07
Beste erabiltzaile batzuk	15	2	2	2	17	4	0,92	1,75
Beste batzuk	82	10	10	1	92	11	5	4,82
E.D.D.	27	3	4	1	31	4	1,78	1,75
GUZTIRA	1.781	212	52	16	1.833	228	100	100

JASANDAKO KALTEAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
FISIKOAK	1.230	124	23	11	1.253	135	31,24	32,07
PSIKIKOAK	1.373	132	40	12	1.413	144	35,26	34,21
EKONOMIKOAK	628	53	25	9	653	62	16,28	14,72
SOZIALAK	576	51	23	8	599	59	14,93	14
ZEHAZTUGABEAK	88	19	4	2	92	21	2,29	5
GUZTIRA	3.895	379	115	42	4.010	421	100	100

ADINA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
0-6	1	4	-	-	1	4	0,06	1,76
7-12	6	4	-	1	6	5	0,33	2,20
13-18	42	11	-	-	42	11	2,30	4,82
19-25	207	15	7	1	214	16	11,67	7,05
26-35	638	56	7	2	645	58	35,18	25,43
36-45	415	46	12	6	427	52	23,29	22,80
46-55	197	26	10	3	207	29	11,29	12,71
56-65	94	24	3	-	97	24	5,30	10,52
> 65	64	17	1	1	65	18	3,54	7,89
E.D.D.	117	9	12	2	129	11	7,04	4,82
TOTAL	1.781	212	52	16	1.833	228	100	100

EGOERA PERTSONALA

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ez kongabea	653	92	11	5	664	97	36,23	42,54
Ez kondua	684	64	25	7	709	71	38,67	31,15
Izatezko bikotea	54	5	4	1	58	6	3,11	4,38
Alarguna	54	9	3	1	57	10	3,11	4,38
Banandua	112	8	3	2	115	10	6,27	4,38
Izatezko bikote banandua	14	1	-	-	14	1	0,77	0,44
Dibortziatua	68	8	3	-	71	8	3,87	3,50
E.D.D.	142	25	3	-	145	25	7,91	10,97
GUZTIRA	1.781	212	52	16	1.833	228	100	100

IKASKETAK

	ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Ikasketa gabea	12	3	-	-	12	3	0,66	1,32
Lehen mailakoak	809	85	25	6	834	91	45,50	39,92
Ertainak	524	73	7	9	531	82	28,97	36,96
Goi-mailakoak	72	8	10	-	82	8	4,47	3,51
E.D.D.	364	43	10	1	374	44	20,40	19,29
GUZTIRA	1.871	212	52	16	1.833	228	100	100

LAN EGOERA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
LANGILEA	Autonomoa	64	5	5	1	69	6	3,77	2,64
	Inoren kontura, finkoa	285	39	9	8	294	47	16,04	20,61
	Inoren kontura aldi baterako	205	15	8	2	213	17	11,63	7,46
	E.D.D.	18	3	-	1	18	4	0,98	1,76
LANGABEA	Gizarte-larrialdiko laguntza	151	15	3	-	154	15	8,41	6,57
	Langabezi prestazioa	23	1	-	-	23	1	1,26	0,44
	Langabezi sorospena	7	2	-	-	7	2	0,38	0,87
	Prestazio ekonomikorik gabe	67	1	2	-	69	1	3,76	0,44
	E.D.D.	85	3	2	1	87	4	4,75	1,76
Jubilatua/pentsioduna		120	31	1	1	121	32	6,60	14,04
Ikaslea		76	20	2	-	78	20	4,25	8,77
Etxekoandrea		314	-	15	-	329	-	17,94	-
Ezkatukoa		52	32	1	2	53	34	2,89	14,91
E.D.D.		314	45	4	-	318	45	17,34	19,73
GUZTIRA		1.781	212	52	16	1.833	228	100	100

HUTSEGITEAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Pertsonen aurkakoak	Lesioak	28	2	3	-	31	2	16,49	6,07
	Zuhurtziagaberiak eragindako lesioak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Zaintza hausketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Familiarteko tratu txarrak	13	-	3	4	16	4	8,52	12,13
	Mehatxu arinak	38	11	1	1	39	12	20,75	36,37
	Irainak eta isekak	29	3	3	4	32	7	17,03	21,21
	Derrigortzeak	67	7	3	1	70	8	37,21	24,22
Ondasunen aurkakoak	Ebasketa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Maula	-	-	-	-	-	-	-	-
	Bidegabeko jabetza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Kalteak	-	-	-	-	-	-	-	-
	Iruzurketa	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA		175	23	13	10	188	133	100	100

DELITUAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Askatasu-naren aurkakoa	Legez kontrako atxiloketa	4	-	1	1	5	1	0,26	0,47
	Mehatxuak	235	29	5	-	240	29	12,17	13,56
	Hertsatzeak	52	4	3	2	55	6	2,79	2,81
Pertsonen aurkakoa	Giza hilketak	4	-	3	1	7	1	0,36	0,46
	Tentatiba	3	-	-	-	3	-	0,16	-
	Tratu txarrak (153 art.)	845	104	19	6	864	110	43,80	51,41
	Lesioak	236	29	2	1	238	30	12,07	14,02
Osotasun moralaren aurkakoa	Ohiko tratu txarrak (173 art.)	463	29	9	3	472	32	23,93	14,95
Sexu askatasu-naren aurkakoa	Sexu-erasoa	15	-	2	-	17	-	0,87	-
	Bortxaketa	-	-	1	-	1	-	0,05	-
	Sexu-abusua	4	1	2	1	6	2	0,30	0,94
	Sexu-jazarpena	-	-	-	-	-	-	-	-
	Sexu-probokazioa eta exhibizioa	-	-	-	-	-	-	-	-
	Prostituzioa eta adingabekoen galbideratzea	1	-	-	-	1	-	0,05	-
Ohorearen aurkakoa	Kalumniak	-	1	-	-	-	1	-	0,46
	Irainak	8	1	1	-	9	1	0,45	0,46
Familia harremanen aurkakoa	Pentsioa ezordaintzea	7	-	-	-	7	-	0,34	-
	Legez kontrako ezkontza	-	-	-	-	-	-	-	-
	Adingabearen egoera aldaraztea	1	-	-	1	1	1	0,05	0,46
	Zaintza hausketa	2	-	-	-	2	-	0,10	-
	Adingabeak ateratzea	1	-	-	-	1	-	0,05	-
	Adingabeak uztea	2	-	-	-	2	-	0,10	-
Justizia Administra-zioaren aurkakoa	Akusazio faltsua	1	-	-	-	1	-	0,05	-
	Lekukotasun faltsua	-	-	-	-	-	-	-	-
	Ebazpen judiziala ez betetzea	38	-	-	-	38	-	1,90	-
Intimitatea	Bizileku bortxatzea	2	-	-	-	2	-	0,10	-
	Sekretua agertarazi eta ezaguteratzea	1	-	-	-	1	-	0,05	-
TOTAL		1925	1925	198	48	16	1973	214	100

EGILEA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%		
		E	G	E	G	E	G	E	G	
IDENTIFIKATUA	AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	871	67	11	4	882	71	48,15	31,14
		Aurrekoa	52	35	7	4	59	39	3,22	17,09
		Ondorengoa	130	42	5	3	135	45	7,37	19,74
		Albokoa	51	16	5	1	56	17	3,06	7,46
		Ezkon-ahaidea	5	5	-	-	5	5	0,27	2,19
	BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	601	24	6	2	607	26	33,11	11,41
		Laguna	5	-	-	-	5	-	0,27	-
		Lankidea/ikaskidea	1	-	1	-	2	-	0,10	-
		Auzokoa	4	1	2	-	6	1	0,32	0,44
		Beste bazukt	30	16	9	2	39	18	2,12	7,90
	EZEZAGUNA		3	-	3	-	6	-	0,32	-
IDENTIFIKATU GABEA		-	-	-	-	-	-	-	-	
E.D.D.		28	6	3	-	31	6	1,69	2,63	
GUZTIRA		1.781	212	52	16	1.833	228	100	100	

ZUZENEKO ETA ZEHARKAKO BIKTIMAREKIKO HARREMANA

		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	%
AHAIDEA	Ezkontidea/bikotea/ohia	10	3	13	19,12
	Aurrekoa	5	5	10	14,71
	Ondorengoa	5	-	5	7,36
	Albokoa	15	3	18	26,47
BESTE BATZUK	Senar-emaztegaia/ohia	5	2	7	10,30
	Laguna	-	-	-	-
	Auzokoa	1	-	1	1,46
	Beste batzuk	6	2	8	11,76
E.D.D.		5	1	6	8,82
GUZTIRA		52	16	68	100

BIZITOKIAREN ETA GERTAKARIAREN TOKIAREN ARTEKO LOTURA

		ZUZENEKO BIKTIMA		%	
		EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK
BAI	Etxean	1.148	145	62,63	63,60
	Auzo-komunitatea	15	2	0,82	0,88
	Auzoa	190	26	10,37	11,41
	Lantokia/lkastexea	26	5	1,43	2,20
	Beste batzuk	69	4	3,76	1,74
EZ		228	28	12,43	12,28
E.D.D.		157	18	8,56	7,89
GUZTIRA		1.833	228	100	100

SALAKETA JARTZEKO EDO EZ JARTZEKO ARRAZOIAK

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Justizia administrazioaren jardutea bilatzea	1.160	130	21	9	1.181	139	41,56	42,24
	Itzultze materiala bilatzea	20	7	3	1	23	8	0,80	2,43
	Biktima babesteko neurriak bilatzea	1.229	116	18	6	1.247	122	43,89	37,08
	Salatuarentzako neurri alternatiboak bilatzea	17	4	-	-	17	4	0,59	1,21
	Beste batzuk	29	4	1	-	30	4	1,05	1,21
	Guztira	2.455	261	43	16	2.498	277	87,93	84,19
EZ	Egilearekiko lotura afektiboagatik	109	15	4	1	113	16	3,97	4,86
	Erasotzailearekiko beldurragatik	55	7	6	-	61	7	2,14	2,12
	Erantzun penalak arazoa konpondu ez duelako	28	2	2	-	30	2	1,05	0,60
	Justizia Administrazioarekiko konfiantza ez dagoelako	5	1	2	-	7	1	0,24	0,30
	Epaitegitik kanpoko akordioa dagoelako	3	1	-	-	3	1	0,10	0,30
	Beste batzuk	64	6	6	3	70	9	2,46	2,73
	Guztira	264	32	20	4	284	36	9,99	10,95
N.A.D.	58	16	1	-	59	16	2,08	4,86	
GUZTIRA	2.777	309	64	20	2.841	329	100	100	

AURREKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Egile bera delitu bera	961	109	19	10	980	119	53,47	52,20
	Delitu bera egile ezberdina	76	7	3	3	79	10	4,31	4,39
	Egile bera delitu ezberdina	48	2	2	1	50	3	2,73	1,32
	Egile ezberdina delitu ezberdina	27	-	-	-	27	-	1,48	-
EZ		183	18	16	2	199	20	10,85	8,77
E.D.D.		486	76	12	-	498	76	27,16	33,32
GUZTIRA		1.781	212	52	16	1.833	228	100	100

BIGARREN MAILAKO BIKTIMIZAZIOA

		ZUZENEKO BIKTIMA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
BAI	Poliziala	29	8	1	-	30	8	1,62	3,45
	Judiziala	92	7	1	-	93	7	5	3,02
	Abokatuak	40	2	-	-	40	2	2,16	0,87
	Soziofaiarra	270	32	9	4	279	36	15	15,52
	Beste batzuk	30	2	5	-	35	2	1,89	0,86
EZ		819	73	19	8	838	81	45,07	34,91
E.D.D.		531	91	13	5	544	96	29,26	41,37
GUZTIRA		1.811	215	48	17	1.859	232	100	100



DEMANDA MOTA

		BIKTIMA ZUZENA		ZEHARKAKO BIKTIMA		GUZTIRA		%	
		E	G	E	G	E	G	E	G
Arreta Juridikoa	Eskubideak	781	120	32	10	813	130	27,60	38,47
	Kalte ordaina	23	5	3	-	26	5	0,89	1,48
	Prozedura	402	43	15	6	417	49	14,16	14,50
Arreta Psiko.	Tratamentua	475	46	12	5	487	51	16,54	15,09
	Kontsulta	6	2	3	2	9	4	0,31	1,19
Arreta soziala	Informazioa	268	26	7	2	275	28	9,34	8,29
	Diagnostikoa	298	35	7	3	305	38	10,35	11,25
	Norabideratzea	372	22	12	4	384	26	13,03	7,69
	Errekurtso kudeaketa	134	4	4	-	138	4	4,68	1,18
Akonpainamendua		21	1	3	-	24	1	0,80	0,28
Bitartekotzarako gai		-	-	-	-	-	-	-	-
Zehaztu gabea		67	1	1	1	68	2	2,30	0,58
GUZTIRA		2.847	305	99	33	2.946	338	100	100

ETXEKO INDARKERIAREN ESTATISTIKA DATUEN BALIOESPENA

➤ Arreta jaso duten lagunen kopurua

2007. urtean **2.061 lagunek** baliatu dute Euskadiko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuek (BLZ) etxeke indarkeriarekin zerikusia duten arazoak direla-eta.

➤ Erabiltzaile mota

Datuak aztertuta, nabarmentzekoa da BLZetan laguntza eman zaien lagunen % 88,94 (1.833) emakumezkoa dela; % 11,6 (228), aldiz, gizonezkoa da.

Laguntza eman zaien emakumeei dagokienez, % 97,16 zigor-gertakari baten zuzeneko biktima izan da, eta % 2,84 zeharkakoa. Gizonei dagokienez, % 92,98 zuzeneko biktima izan da eta % 7,02, aldiz, zeharkakoa.

➤ Jatorria

Emakumeen kasuan, batez ere Barruti Judizialek (% 75,17) eta Gizarte Zerbitzuetatik (% 6,21) etortzen dira.

Gizonei dagokienez, gehienak Barruti Judizialek bideratzen dituzte (% 78,13).

➤ Kalteak

Atal hau aztertzerakoan, kontuan hartu beharra dago jasandako kalteak kaltetuek adierazitakoak eta ekipoko profesionalen atzemandakoak direla. Kasuren batean gerta liteke ondorio fisikoak, psikikoak eta ekonomikoak aldi berean gertatzea.

Aurreko urteetan BLZaren erabiltzaile gehienak nagusiki kalte fisikoen biktimak izan dira, jasandako gertakarien ondorioz, eta 2007. urtean, aldiz, jasandako kalte gehienak psikikoak izan direla ikusi da, zehazki, emakumeen % 35,26 eta gizonen % 34,21. Bigarren mailan kalte fisikoak agertzen dira, zehazki, emakumeen % 31,24 eta gizonen % 32,07. Azkenik, laguntza izan duten emakumeen % 16,28k eta gizonen % 14,72k kalte ekonomikoak jasan ditu. Adierazi beharra dago 2006. urteko estatistika-datuetan kalte psikikoak hirugarren mailan agertzen zirela, eta 2007. urtean hori dela gehien adierazi edo atzeman den kaltea.

➤ Adina

Adinari dagokionez, aniztasuna da nagusi. Emakume gehienek (% 35,18k) 26-35 urte dituzte. % 23,29k 36-45 urte ditu, eta % 11,67k 19-25 urte.



Gizonek ere antzeko ordenari jarraitzen diote. Gehienek (% 25,43k) 26-35 urte dituzte, % 22,80k 36-45 urte du, eta % 12,71k 46-55 urte.

➤Egoera zibila

Emakume gehienak ezkontuta daude (% 38,67). Ezkongabeak, aldiz, % 36,23 dira.

Gizonen kasuan kontrakoa da, izan ere gehienak (% 42,54) ezkongabeak dira, eta ezkonduak % 31,15 dira.

➤Ikasketak

Emakumeen % 45,50ek lehen mailako ikasketak ditu, eta BLZra joaten diren gizonen % 39,92k lehen mailako ikasketak ditu. Erdi-mailako ikasketei dagokienez, emakumeen % 28,97k eta gizonen % 36,96k ditu horiek.

➤Okupazio-egoera

Emakumeei dagokienez, % 32,42 jardunean dago: gehienak (% 11,63) besteren konturako langile finkoak dira edo/eta aldi baterako kontratuak dituzte. Etxeko andreak, berriz, % 17,94 dira eta, azkenik, langabezia-egoeran daudenak % 18,56 dira.

Gizonei dagokienez, % 32,47 jardunean dago, eta nagusiki kontratu finkoarekin eta besteren kontura jarduten du.

Era berean, nabarmendu beharra dago erretiratuak dauden edo pentsiodunak diren gizonen ehunekoak, % 14,04 hain zuzen ere.

➤Zigor-zuzenbideko arau-haustearen mota/kalifikazioa.

Delituzko gertakariari dagokionez, nabarmentzekoa da gehienek (emakumeen % 56,39k eta gizonen % 65,89k) pertsonen aurkako delituak (lesioak, tratu txarrak, etab.) salatu dituztela.

Bigarren tokian Osotasunaren aurkako delituak daude, ohiko tratu txarrak alegia: emakumeen % 23,93k eta gizonen % 14,95ek salatu ditu.

➤Delituzko gertakariaren egilea.

Emakumeen eta gizonen kasuan, delitu-egileak biktimarekin familia-loturaren bat dauka (% 62,07k eta % 77,62k, hurrenez hurren). Gehienetan ezkontidea edo izatezko bikotekidea izaten da delitu-egilea (emakumeen kasuan, % 48,15 eta gizonen kasuan, % 31,14). Bigarren tokian senar-emaztegaiak edo bikotekide ohiak ageri dira (emakumeen kasuan, % 33,11 eta gizonen kasuan, % 11,41).



➤Zuzeneko biktimaren eta zeharkako biktimaren arteko harremana.

Zeharkako biktimak delituzko gertakaria zuzenean jasan ez badute ere horren ondorioetako bat jasaten dutenak dira, dela zuzeneko biktimarekin afektibitate-harremana dutelako, dela biktimaren kolektiboko kide direlako.

Emakumeen kasuan, BLZtan laguntza jaso duten zeharkako bitima gehienak familiarateko harremana (ezkontidea, gurasoa, ondorengoa, etab.) dute zuzeneko biktimarekiko, % 58,82ak; gizonezkoetan % 19,11 delarik.

BLZan laguntza jaso duten eta zuzeneko biktimaren familiaratekoak ez diren zeharkako biktimen ehuneko txikia da.

➤Bizitokiaren eta gertakariaren tokiaren arteko lotura.

Laguntza jaso duten emakumeen % 79,01 gertakaria jazo den toki berean (etxean, auzo-komunitatean, auzoan, lantokian, ikastetxean) bizi da. Delituzko gertakaria etxean bertan (% 62,63) edo bizi diren auzoan (% 10,37) jazotzen da.

Laguntza jaso duten gizonen % 79,83 gertakaria gertatu den tokian bizi da. % 63,60 etxean gertatu da, eta % 11,41 bizi diren auzoan.

➤Motibazioa

Salaketa jartzen duten biktima gehienek babes-neurriak bilatzen dituzte salaketa jartzerakoan (emakumeen % 43,89k eta gizonen % 37,08k). Halaber, jasandako delituan Justizia Administrazioak jardun dezan emakumeen % 41,56k bilatzen du, eta gizonen % 42,24k.

Delitua jasan arren salaketa jartzeari uko egiten dioten biktimei dagokienez, emakumeen % 6,11k eta gizonen % 6,98k ez du salaketarik jartzen delituaren egilearekin harreman afektiboa duelako edo haren beldur delako, batik bat.

➤Aurreko biktimizazioak.

Puntu honetan aztertzen da BLZra lehen aldiz jotzen duten lagunek beste biktimizazio bat jasan ote duten, oraingoan azaldu behar dutenaren aurretik. Nabarmentzekoa da emakumeen % 61,99k aldeztu aurreko biktimizazioak jasan dituela, eta kasuen % 53,47tan delitu-egilea eta jasandako delituzko egintza bat datozela.

Gizonezkoen dagokienez, % 57,91k nolabaiteko biktimizazioa jasan du, eta kasuen % 52,20tan egilea eta delituzko egintza bat datoz.



➤ Bigarren mailako biktimizazioa

Nabarmenezkoa da emakumeen % 45,07tan eta gizonen % 34,91tan BLZko profesionalak ez duela bigarren mailako biktimizazioaren zantzurik aurkitu. Gainera, hori gertatu den kasuetan atzeman denez, (emakumeen % 15 eta gizonen % 15,52) gizarte- eta familia-arloko bigarren mailako Biktimizazioa gertatzen da.

➤ Demanda mota

Zerbitzuaren erabiltzaileek demanda juridikoak egin dituzte bereziki (emakumeen % 42,65ek eta gizonen % 54,45ek). Demanda horietatik gehienek eskubideekin eta prozedurarekin dute zerikusia, baita, neurri txikiagoan, kalte-ordainekin ere.

Gizarte-laguntza emakumeen % 37,4k eta gizonen % 28,41k eskatu du. Laguntza psikologikoa, aldiz, emakumeen % 16,85ek eta gizonen % 16,28k.